


Aretxagazeta

Arexabaleta • 1997ko uztaileak 17 • 126. zka.



Udako
oporretan
opari
berezia
(1997ko 17. or.)

Argazkia: Patxi Iriarte

Portasolen San Lorentzoak

Jai batzordea

Argazki artxiboa

... bi aukera hauen bidez

zure poltsikoaren neurrira.



HEWLETT PACKARD 525 MMX PENTIUM 166 ordenadorea



AMERICAN RESEARCH CORPORATION PENTIUM 166 ordenadorea

Multimediaren mundura zabal-zabal irekita dagoen leihoa

- Multimediaren abantaila guztiak eta lan, hezkuntza nahiz aisialdi alorrean komunikazioek dituztenak ahalik gehiena garatzea.

- Faxak bidali eta jasotzea.

- Dei telefonikoak egin eta erantzungailuan mezuak jasotzea.

- Multimedia informazioa erabiltzea: testuak, grafikoak, irudiak, musika, bideoa, jokoak,...

- Zuen seme-alaben ikasketak maila guztietan hobetzea.

- Internet sarearen bitartez zure intereseko gaiari buruzko datu-base eta artiboak eskuratzea.

Eta halaber, erabilera handia duten eta etxe guztietan geroz eta ohikoagoak bihurtzen ari diren makina bat egin-kizun.

Ezinbesteko tresna zu eta zure familia atzera gera ez zaitzen eta denon eskura dagoen teknologiarik aurreratuenaren bidez Multimediaren eta Komunikazioaren munduan sar zaitzen. Erraz erabil daitekeelako eta baldintza ekonomiko paregabeak dauzkalako.

Eta bestela, begiraiezu Euskadiko Kutxaren finantzaketaren bidez egiten zaizkizun bi eskaintza haundi hauen zenbakiei. Zure eskura... eta, jakina, zure poltsikoaren neurrira jarri dizugun aukera ezin hobea delako.

HEWLETT PACKARD 525 MMX PENTIUM 166 ordenadorea

- ~~ESKAINNTZA HONEK MERKATUAN DUEN BALIOA~~ 481.800 pta.
- ~~Horren finantzaketak izango izango duzun KOSTUA Euskadiko Kutxak eskaintzen dizkizun baldintzetan~~ 548.827 pta.

KOSTUA ZURETZAT

- Hasierako sarrera 15.000 pta.
- Irekiera komisioa (%1,5) 5.175 pta.
- 345.000 pta.ko kreditua, hilean 9.695 pta. * bakarrik ordaindu beharreko 40 ordainketetan finantzaturik 387.000 pta.
- GUZTIRA 407.975 pta.

GUZTIRA AURREZTEN DUZUNA (%25) 140.852 pta.

* Interes tasa nominala %7. U.T.B.: %8,22

AMERICAN RESEARCH CORPORATION PENTIUM 166 ORDENADOREA

- ~~ESKAINNTZA HONEK MERKATUAN DUEN BALIOA~~ 305.800 pta.
- ~~Horren finantzaketak izango izango duzun KOSTUA Euskadiko Kutxak eskaintzen dizkizun baldintzetan~~ 349.469 pta.

KOSTUA ZURETZAT

- Hasierako sarrera 15.000 pta.
- Irekiera komisioa (%1,5) 3.855 pta.
- 345.000 pta.ko kreditua, hilean 7.222 pta. * bakarrik ordaindu beharreko 40 ordainketetan finantzaturik 288.880 pta.
- GUZTIRA 307.735 pta.

GUZTIRA AURREZTEN DUZUNA (%11) 40.734 pta.

* Interes tasa nominala %7. U.T.B.: %8,22



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zer egingo duzu oporretan?



Raquel Mijangos
(Langilea)

Deskantatzeko asmoa dut. Hemen horren denbora txarra egiten duenez, Andaluzia aldera joateko asmoa daukat. Jaietan ez naiz hemen egongo, kanpora joango naiz.



Julian Jausoro
(Langilea)

Mendi aldera joateko asmoa dut. Deskantsatu, ibili... denetik egingo dut. Andramaixetan hemen egongo naiz. Ia urtero etortzen naiz jaietarako.




Lurdes Alvarez
(Ikaslea)

Andaluzia aldera joateko asmoa daukat 15 egunetarako. Kanpinean eta apartamentuan egongo gara. Gero Extremadurara joango naiz gurasoen herrira. Andramaixetan ez naiz hemen egongo. Ez naiz egoten normalean.



Kerman Colino
(Ikaslea)

Gurasoekin Castellonera joango naiz. Bertan hondartzan eta igerilekuan lagunekin jolastuko dut. Hotelean egongo gara. Andramaixetan etorriko naiz.



eskutitza



Aretxabaletako herriari

Bihar Portasoleko jaiak hasiko dira Aretxabaletako herrian. Ekintza ugari prestatu ditugu publiko guztietara hurbiltzeko asmoarekin. Helduentzako bi dantzaldi, sokamuturra eta mus txapelketa izango dira eta gazteentzat, berriz, Euskal Herri osoan ezagun egingo gaituen tekno jaiak. Guk egin dugu gure lana. Orain zuek zarete protagonistak, zuek zarete gure kaleak alaitasunez bete behar dituzuenak eta Euskal Herriko jendeari gure giro ona erakutsi behar diezuenak.

Lerro hauek aprobetxatuz Sun's Door diskotxozna inguruan bizi zaren bizilagunei pazientzia pixkat eskatzen dizuegu. Gure aldetik ahal dugun dena egin dugu kaleko zarata gutxitzeko, baina mugida hau benetan ona izateko beharrezkoa da zarata egotea eta hau da gure aukera.

Aurtengo aldaketa garrantzitsuena sokamuturra izan da. Gorbea, Aralar eta Zاراia


kaleetan egingo da. Erabaki hau ez da gurea izan. Udaletxearen erabakia izan da, baina ez du zergaitik gaizki egon behar. Hori bai, inguruetan bizi zaretenok ezingo duzue kalera urten ordu horietan. Bukatzeko eskerrak ematen nahi dizkiegu jaiak antolatzen lagundu diguten guztiei eta bereziki bizilagun eta udaletxeko kultur eta zerbitzu departamentuei. Anima zaitetz eta etorri dantzatzeko batzuk botatzera. Zuretzat prestatu ditugu jaiak.

Gora Portasoleko jaiak 97

Portasol Auzoko Gazte Lagun Elkarteak

Oporrak!

Opor sasoia iritsi da eta Aretxagazetak ere oporrak hartuko ditu. Abuztuaren 28an Andramaixetako kontuekin itzuliko gara. Bitartean ondo izan eta ez ahaztu postaltxoa idaztea.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Arantzazu Zuazabeitia, Inma Miguel, Loramendi E. E., kultura saila, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Nagusien Akordeoi Orkestra Italian



Santa Giustinako II. Nazioarteko akordeoi jaialdian parte hartuko dute

Uztailaren 15ean Italiako Santa Giustina herrirantz irten ziren Nagusien Akordeoi Orkestrakoak. Santa Giustina de Bellunoko (Vénetoko lurraldea) herrian ospatzen den II. Nazioarteko jaialdian parte hartzeko gonbidapena jaso zuen herriko taldeak eta gonbiteari erantzunez, jaialdian parte hartuko dute. Jaialdiko ekitaldiaz gain, Dolomitako Arrabba herrian kontzertu bat eskaini eta Venezia bisitatzeko aukera izango dute orkestrako partaideek. Beste barik zorte ona opa diegu jaialdirako.

Giacomo Rossini orkestra Aretxabaletara

Goiko gonbitearen ostean, beste gonbite bat dator jarraian. Kasu honetan, Aretxabaletako akordeoi orkestrak Santa Giustinako "Giacomo Rossini" orkestra gonbidatu du gure herrira. Bisitaldia irailaren 11tik 14ra bitartekoa izango da eta hainbat kontzertu eskainiko dute bertan.

Elkar truke honen bitartez, herriko akordeoilariek beste herrialde batzuetako akordeoilariekin esperientzia atsegina pasatzeko aukera izango dute.

Lau milioi pezetako bi taulatu erosi ditu Udalak

Herrian burutuko diren kontzertu, jaialdi eta gainontzeko ikuskizunak burutu ahal izateko lau milioiko aurrekontua duten bi taulatu erosi ditu Udalak. Erosketa Terrassako (Catalunia) Doublet enpresari egin zaio, Udalaren ustez eskaintzarik egokiena enpresa honek egin baitzuen.

Taulatu haundiak direla esan daiteke. Haundienak 6x8 metroko zabalera du, estalkia barne. Txikiena, berriz, 6x6 metrotakoa da. Eskailera eta euskarriak altzairuzkoak izan arren, taulatua bera egurrezkoa da.

Lurperatzaile eta hirigintza teknikari lanpostuak kaleratuko ditu Udalak

Udalak lurperatzaile eta hirigintza teknikari lanpostuak betetzeko bi plaza kaleratzeko asmoa du.

Lurperatzaile lanpostua plaza finkoa izango da eta konkurtso-opozizio bidez egingo da. Oinarriak uztailean bertan onartuko dira eta eskaerak egiteko epea zabalduko da ondoren.

Hirigintza teknikari lanpostua, berriz, irailean aterako da publikora ziurrenik. Hau ere epe finkorako izango da eta opozaketa bidez eramango da aurrera.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

Esteban Oroz eibartarrak lehen saria jaso zuen margo lehiaketan



Esteban Oroz irabazlearen margo lana

Aurtengo margo lehiaketak 30 partehartzaile bildu zituen. Gehienek kale ingurua aukeratu zuten margotzeko, baina Urkulura inguratu zenik ere izan zen. Eguraldi goibela egin arren, euri tantarik ez zuen egin. Irabazleak honako hauek izan ziren: 1.goa: Esteban Oroz eibartarra, 2.a Jokin Telleria (Beasain)



Igor Olalde maila altua erakutsi zuen eta Aretxabaletako bigarren saritua izan zen

eta 3.a Eluska Zabalo, azken hau arrasatearra.

Atxabaltar artistek ere euren trebetasunak erakusteko parada izan zuten egun honetan. Lehen atxabaltarra Pauxi Bengoa izan zen. 2.a Igor Olalde eta 3.a Gurutze Mujika. Igor Olalde gaztetxoak maila handia erakutsi zuela aipatu zuen epaimahaiak.

Gazteetan, Fernando de la Torre eibartarraren lana izan zen lehen saria eskuratu zuena; bigarrena, berriz, Asier Iriondorena, hau ere eibartarra. Lehen atxabaltarra Maialen Marrodan.

Epaimahaia margolari ezagunek osatu zuten: Jose Mari Agirrezenitagoia, Angel Goenaga eta Michel Tygat.

Termetara irteerak 65 urtetik gorakoentzat

Aurtengo urterako lau terma egonaldi antolatu ditu Foru Aldundiko Gizartegintza sailak: Zestoa, Arnedillo, Fitero eta Puente Viesgo. Irteerak urria, azaroa eta abenduko hilabeteetan zehar egingo dira. Bertan parte hartzeko baldintzak, 65 urtetik gorakoa izatea, Gipuzkoan bizi eta bere kabuz baliatu ahal izatea da. Izena ematen duten guztien artean, zozketa egingo da eta plazak hutsik geratzen badira, izenemate berriak onartuko dira.

Argibide gehiago nahi izanez gero, ondorengo telefonora dei egin daiteke: 900 43 43 43. Bertan txanden eta prezioen berri jaso ahal izango da.

Ordubeteko geldialdia

Astelehenean Migel Angel Blancoren atentatua gaitzetzeko eta bere heriotzean familiari elkertasuna erakusteko ordubeteko geldialdia antolatu zen udaletxean. Bestalde, herriko zenbait komertzio eta lantegi ere batu ziren Ajuria Eneko Mahaiak deitutako lan uztera. Ordubetez atek itxita izan ondoren normaltasunez jarraitu zen lanean.

Plazako eskilaren konponketa

Plazako eskilaren egoera txarra zela eta aurreko ale batean argitaratu zen eskutitzari erantzuna eman nahi izan dio Udaleko obra eta zerbitzuetako batzordeak. Batzorde honek bere kezka adierazi du eskilarak apurtuta daudelako eta gaineratu du "azken aldian gero eta gehiago hondatu direla". Horregatik, Udalak konponketa obrak martxan jarriko ditu uztaila bukaeran.

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta
Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik
zura zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA
Bazkari
eta
afariak

Tfno 714345

ERRETEGIA

MENDIOLA

Astelehenetan itxita

Jaietako giroa pil-pilean

Portasoleko jaiak datorren astebu-kaeran izango ditugu. Dena gertu dago jai giroan murgildu eta egun alai batzuk pasatzeko. PAGLE, Postasol Auzoko Gazte Lagun Elkar-terko Dabid Mateok kontatu dizkigu jai hauetako antolakuntza eta egitarauaren nondik norakoak. Ezin aipatu barik utzi, talde honek sortu zenetik Portasoleko jaiak iraun dezaten egin duen ahalegina eta lana.

• **Noiztik dabil PAGLE elkar-tea Postasol auzoko jaiak antolatzen?**

Gure taldeak bederatzi urte daramatza jaiak antolatzen. PAGLE lehenagotik dago, ordea.

• **Noiz hasten zarete antolakuntza lanekin?**

Apirila eta maiatzean egiten ditugu lehen batzarrak. Antolakuntzan hiru talde sortzen dira: egitarauaz arduratuko dena, publikitateaz eta txosnetaz. Hasiara batean jaien egitaraua pentsatzen da, kontratu, tramitazio eta diru biltzeaz lehebailehen hasteko. Jaietan ere lanean egon behar izaten dugu. Antolatzen ditugun ekintzetarako arduradunak bilatzen saiatzen gara.

• **Nondik lortzen duzue dirua?**

Udaletik dirulaguntza jasotzen dugu. Jaietako aurrekontuaren erdia baino gehiago geuk lortutako diru iturria da. Auzokideek, enpresa, komertzio eta dendek laguntzen digute eta gainontzekoa txosnetatik



Dabid Mateo
Jaietako antolatzailea

jasotzen dugu.

• **Auzokide, komertzio, etabarrek ondo erantzuten dute?**

Orokorrean oso erantzun ona izan dugu. Alde horretatik ezin gara kexatu.

• **Zer ikusteko aukera izango du Portasolera hurbiltzen denak?**

Ostiral gauean hiru ekintza egongo dira: kontzertu elektronikoa kanpoan, Zaraia ondoko plazan, berriz, Ludiberri taldeaz dantzaldia eta txosnan DJak. Zapatuan, zezanak, umeekin jokuak, mus txapelketa eta gauean "Hermanas Ross" orkestra. Domekan, xake txapelketa, umeekin jokuak...

• **Programa antolatzerakoan zer eukitzen duzue kontutan?**

Adin guztiei zuzendutako programa egiten saiatzen gara. Umeen dako jokuak antolatzen ditugu, gaz-

Dena gertu Portasoleko San Lorentzotarako



"Gaur egungo taldea orain bederatzi urte hasi zen jaiak antolatzen eta urtez-urte ikasten joan gara"

teendako kontzertuak, txapelketak, sokamuturra... Edadeko jendea ere kontutan hartu dugu. Jende gazteak gero eta gutxiago parte hartzen du dantzaldietan, horregatik, edade-tuendako antolatu dugu "Hermanas Ross" orkestra.

• **Horrenbeste urte jaiak antolatzen, ez da nekagarria?**

Egia esan bai, hiru urtetatik hona urtero azkena izango dela esaten jardun dugu, baina gu ordezkaturko gaituenik azaltzen ez denez, jarraitu egin dugu. Nork antolatuko ditu bestela?

• **Jende asko etorriko dela uste duzue?**

Bai, inoiz baino jende gehiago etorriko dela uste dut. Portasoleko jaietara jende asko hurbiltzen da.

• **Jaietan ondo pasatzeko aukerarik izango duzue antolatzeileek?**

Gainontzeko jendea nola dibertitzen den ikusiko dugu. Gu ere saiatuko gara ondo pasatzen.

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792944

ARETXABALETA

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Badatoz Andramaixak!

Abuztuaren erdi erdian Andramaixak zain izango ditugu. Jaietan egoteko asmoa duenak izango du hainbat ikuskizun eta ondo pasatzeko aukerarik. Aurtengo programan, rock kontzertuak (Latzen, Ehiztari beltza, Ktulu, Inbigu) dohaineko paella erraldoia, habanerak, gaitero eta buruhaundien konpartsa eta urteroko ekintzak izango ditugu: zezenak, Zumaiako banda, suzko erruerak... 6.083.550 milioiko aurrekontua duten jaiak "orekatuak izango dira", hala adierazi digu behintzat jai batzordeak.



ANDRA MARI JAIK 1997
abuztuak 14, 15, 16 eta 17
a r e t x a b a l e t a

Aurtengo Andramaixetako egitaraua iragarriko duen kartela hau izango da.

Guztira 11 kartel aurkeztu ziren lehiaketara eta Felis Beltran de Herediarena izan da aukeratua.

Gogoz ibili da jai batzordea herriko jaietarako egitaraua gertatzen. Kultura saileko ardura-dunekin batera herriko hainbat lagunek parte hartu du bertan.

Batzordeko bi partaiderekin izan gara, Iurgi Etxebarria eta Igone Zaloñarekin. Programazioa irakurri eta herriko jaietan parte hartzeko eskatu digute.

• Noiztik dabil jai batzordea lanean?

Lehenengo, San Migelak antolatatu zirenean jai batzorde bat sortu zen. Ondoren, legegaldi batean zehar desagertu egin zen eta iaz ostera ere jarri zen martxan.

• Zelakoa izan behar du jai batzorde batek?

Ahalik eta jende gehien etortzea komeni da, bakoitzak bere iritzia eta informazioa eman dezan. Batek antzerkiari buruzko informazioa eman du, musika taldeena beste batek...

Jai batzordeak herritarrek zer nahi duten kontutan hartu behar du.

“Jaietako programa behintzat irakurtzeko eskatuko nieke herritarrei”



Iurgi Etxebarria eta Igone Zaloña

Jai batzorde hau gazte jendeak osatu dugu, hala ere, beste adin batzuk ere hartu dira kontutan egitaraua betetzera. Ekintza guztiak eztabai-datu dira akordiotara heltzeko. Jai batzordeaz gain, beste komisio batzuk ere parte hartzen dute jaien antolakuntzan, pelota komisioak, boloetakoak... hauek ere jai batzor-

dean parte hartzea garrantzitsua izango litzateke.

• Zeintzuk izango dira aurtengo berrikuntzak?

Iaz tangoak egon ziren moduan, aurtun habanerak izango ditugu. Kontzertu bi egongo dira: bat Latzen eta Ehiztari beltza taldeek eskainiko dutena eta bestean Inbigu eta Ktulu talde kataluniarrak. Umeendako Saltsa tronik Egunkariaren emankizuna ondo egongo dela uste dugu. Beste berrikuntza bat gaiteroen eta buruhaundien konpartsa izango da. Eta hirugarren eguneko herri bazkarirako paella erraldoia antolatu da. Dohain izango da, norberak ogia eta edaria ekarri beharko ditu. Bestalde, Zumaiako banda, zezenak, suzko erruerak, pelota partiduak, etabar... mantendu egingo dira.

• Zer esango zenieke herritarrei?

Programazioa irakurtzeko eta gustatzen zaien ekintzetan bildur barik parte hartzeko.

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETAK

IBARRA ESTANKOA



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

Martín

RELOJERIA • BIXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66
Fax: 77 10 33

Argazki artxiboa

Gure herriaren islada grafikoa

Udal argazki artxiboa sortzearen proiektua martxan dago. Egia esan, ez da ideia berria, baina orain artean ez da aurrera eramateko aukerarik izan. Artxiboak lan haundia izango du, horregatik proiektuaz interesatuta dauden herritarrek ateak zabalik dituzte.

Atzera jotzen badugu, orain 15-20 bat urte, Alkar taldeak, Udalaren laguntzarekin batera, argazki elkarte bat eduki zuen martxan. Iharduera desberdinen artean, argazki ikastaroak egiten zituen, argazki-laborategi bat martxan jarri eta argazki lehiaketa bat sortu zuen. Gaur egun, argazki laborategiak instalazio egokiak ditu, baina ez zaio behar bezalako erabilera ematen.

Alberto Etxebarria, Pablo Txintxurreta, Manolo Urtubi eta Jose Ramon Elkorok, lehen sortutako ideari bidea zabaldu nahi izan diote, udal argazki artxiboari, hain zuzen ere.

Udal argazki artxiboa, "gure herriaren islada grafikoa izango litzateke", hau da, argazkien bidezko herriaren imajina, bai iraganeko Aretxabaleta eta baita gaur eguneko ere, ohiturak, jendea, gertaerak...

Argazki artxiboa bi metodo erabiliz egingo da: argazki tradizionalako metodoa eta informatika bidezkoa. Lehena, likidoen bidez egindako erre-



"Artxiboa herritarren eskura jarri nahi da, edozeinek kontsultatzen aukera izan dezan"

belatua da, paperean edo diapositiban, gaur egun, oraindik ere oso erabilia. Bigarren aukera, "argazki hauek edukiera haundiko CD-argazkietan gordetzea izango da".

Herritarren eskura

Artxiboa herritarren eskura jarri nahi da. "Leku publiko batean, liburutegiaren esaterako, eta horrela edozeinek kontsultatzen aukera izan dezan". Hasi- era baten, lau argazkiz osatutako orri plastifikatu bat izango luke herritarren eskura. Datu basean hau

aurkitzeko zenbaki bat izango du eta argazkiaren informazio laburra, norena den, noizkoa...

Proiektua aurrera ateratzeko, argazki laborategia eta ekipo informatikoa behar izango dituzte. Herriko argazki laborategia instalazio egokiez hornituta dago, "aldaketa txiki batzuk eta garbiketa on bat egin beharko zaio".

Ekipo informatikoa proiektuaren zatirik garestiena da. Ordenagailua, scanerra, inpresora eta bestelako materialak behar dira. "Udaletxera proiektu-

tua aurkeztu dugu beharrezko materialak erosteko aurrekontuaz. Proiektuak harrera positiboa izan du. Momentuz erantzunaren zain gaude".

Hasi- era bateko asmoa, artxiboa argazki-laborategian bertan kokatzea da. Leku egokia izango da argazkien kopia, errebelatu, sailkatze eta tratamendurako.

Herritarren laguntza

Artxiboaren sorreran eta mantenimenduan lan haundia dago egiteko. Horregatik, argazki munduaz interesa duen edonoren laguntza edo partaidetza eskertuko lukete taldekideek. "Ateak zabalik daude, dagoeneko "Kapirixoa" moduko talde batzuekin harremanetan jarri gara, argazkien inguruko informazioa batzeko baliagarria izango da euren laguntza: noizkoa den, zein gertaera... Proiektuan parte hartu nahi duen edonorentzat ateak zabalik daude beraz. Proiektuaz interesaturik dagoena taldekideekin harremanetan jar daiteke.

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

**AMETS
TABERNA**

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

ARGAZKI

Urkiola


Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

Badira bost urte, Aitor Garciaetxabe atxabaltarrak gure kostaldeko ur ondoak lehenengo aldiz bisitatu zituela. Bere lehengusuak bultzatuta, hasierako urpekaritza saioak Lekeitioko itsasertzean gauzatu zituen eta ordutik itsasondoaren xarmak hunkituta, aisialdiko momentu oro aprobetxatzen du kantauriko uretan murgiltzeko. Urpeko ehizan ere iaioa da. Aipatu beharra dago honela harrapatu zuela 25 kg.tako itsas aingira.

Sentsazio berrien bila urpeko erreinuan

Atxabaltarron artean ere badago ez ohiko kirol hau praktikatzan duenik. Aitorrek hogeitabat urte zituela bizi izan zuen bere lehenengo esperientzia Lekeition eta berak adierazi digunez, ez zen oso urperakuntza saio ona izan. "Azkar asko irten nintzen uretatik, gure kostaldeko urak oso hotzak dira eta 20 metrotara tenperatura izugarri jeisten da". Hala ere, gerora sumarinismoa bere afizio nagusienetarikoa bilakatu da.

*"Hitzez
deskribatu
ezinezko
sentsazioak bizi
izan ditut
urpean"*




Aitor Garciaetxabe Kantauriko itsas ertzean

Egun hartan bizi eta ikusitakoak eraginda ez zuen birritan pentsatu eta beharrezko ikastaroa egin zuen. Ordutik, esperientzia on eta txarrez jositako bost urte pasatu diren arren, Aitorrek hasierako ilusio berberarekin jarraitzen du kirol hau praktikatzan. Itsaspeko ikuskizuna eta bertan egotearen sentsazioa deskriba ezina dela dio, "hitzez deskribatu ezinezko sentsazioak bizi izan ditut urpean".

Karibeko ur gardenetako landaretza eta faunaren aberastasunaz gozatzeko aukerarik izan du, gure kostaldeak ikusgarritasun gutxiago eskeintzen du Karibekoaren aldean, azken honek enkantu berezia dauka.

Prestakuntza

Urpekaritza praktikatzeko, beharrezkoa da ikastaro bat egitea eta oinarrizko urpekaritza ekipo bat edukitzea. Ekipo hau aleta pareta, tuba bat (arnasa hartzeko tuboa)



Urpekaritza praktikatzeko beharrezkoa da ikastaro bat egitea

Argazkia: Patxi Iriarte

urpeko betaurrekoak, gerrikoa, oxigenoz kargatutako bonbona, kontrolerako aparatua (sakonera, oxigenoa eta urpean daramagun denbora neurtzen duena) eta txaleko hidrostato batekin osatzen da.

Erdizpurdizko ekipo baten salneurria 250.000 pezetara iritsi daiteke, horregatik badaude kirol hau praktikatzeko materiala alokatzeko dendak.

Ikastaroak, 80.000 pezetaren truke har daitezke. Bertan, klase teorikoez gain, itsasora zenbait irteera praktikoa egiten dira. Besteak beste urpean lasai egoten eta arnasa kontrolatzen ikasten da, baita itsasoak bete beharreko baldintzak zeintzuk diren: korronteak, deskonpentsazioa, itsasoaren mugimenduak, etabar.

Ikastaroaren amaieran egindako azterketa gainditu ezker federatzea lortzen da eta noski, honekin munduko itsas barren guztiak konkistatzeko baimena. Ikastaldi hauek, Mutrikun egin daitezke. Urtean, hiru kurtso egiten dira eta

bakoitzetik hamahiru-hamalau urpekari berri federatzen dira, baina gerora gutxi batzuk soilik jarraitzen dute kirol honetan, askok ez baitu denborarik ez eta beharrezko baliabide ekonomikorik.

Bestelako prestakuntza berezirik ez da behar eta edozeinek praktika dezakeen kirola da.

Korrika pixkat eta txirringularitza saio batzuk egitea gomendagarriak diren arren Aitorrek ez du aparteko ariketa fisikorik egiten, hori bai, urperakaritza kirol oso konpletua dela ziurtatzen digu. "Arratsalde osoa urpean eman ondoren ez da indarririk gelditzen larunbatean goizaldeko seirak arteko farra botatzeko".

Urpeko ehiza

Beste modalitate hau ere praktikatzen du Aitorrek. Hemen aldiz, ez dauka aparteko ekipamendu berezi batekin horni-



"Karibeko kostaldeak enkantu berezia dauka"

Urpekaritzan kontutan eduki beharreko urrezko hamar arauak

- 1.- Inoiz ez zaitez kirol hau praktikatzera bakarrik joan.
- 2.- Arriskuak ekiditzeko, zonalde arriskutsu eta ezezagunetara ez da abentura bila joan behar.
- 3.- Itsasoaren egoeraz informa zaitez bertan murgildu baino lehen.
- 4.- Ekipoaren egoera ona ziurtatu.
- 5.- Hotzaren ondorioz sortu daitezkeen hipotermiak ekiditu.
- 6.- Zure indarrak kontrolatu, larri bazaude ez egon dudatan, igo gora.
- 7.- Argi ibili belarriek jasan dezaketen presioarekin.
- 8.- Ahal bada, forma fisiko onean mantendu.
- 9.- Nerbioak kontrolatzea beharrezkoa da, arnasketa egoki bat gauzatzeko.
- 10.- Federazioaren karneta beti aldean eraman.

tuta joateko beharrik. Izan ere, urpeko ehizan harrapakina eskuratu ahal izateko, beharrezkoa baita norberak urpean irauteko duen gaitasuna.

Bestalde, urpeko ehizan bonbonaren erabilera galerazita dago. Modalitate honetan, birikiek bonbonaren ordezkotzat funtzioa betetzen dute. Ondorioz, urpean batetik bestera ehizan ibili ahal izateko denbora mugatua da.

Ekipamenduari dagokionez betaurrekoak, aletak, arnasa hartzeko tubo eta ehizarako pistola behar-beharrezkoak dira. Aletei esker, harrapakinarengana gerturaztea askoz errazagoa da, urpean arinago ibiltzeko aukera luzatzen



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



Argazkia: Patxi Iriarte

“Urpeko erreinua errespetatu beharra dago bertan gu baikara gonbidatuak”

Karibeko esperientzia

Aitor egona da Karibeko ur epeletan urpekaritza praktikatzen. Bere esanetan, itsaso hau oso egokia da batetik uraren tenperaturarengatik eta bestetik fauna eta floraren aberastasunagatik.

Zonalde turistikoena nahiko garbituak dauden arren eta sakonera gutxiko itsasoa izan arren, han bizi izandakoa bere esperientziarik hoberenatarikoa bezala gogoratzen du.

Karibbean, landaretzari dagokionez, koralak, esponjak eta morena berdeak dira ikusgarrienak eta faunari dagokionez mota guztietako arrainak ikus daitezke. Itsasondo haietatik oroigarriren bat ekarriko zuelakoan geunden baina urpetik edozein koral, landare... hartzea erabat galerazita dago: “urpeko erreinua errespetatu beharra dago bertan gu baikara gonbidatuak”.

Kirol hau berez nahiko garestia izateaz gain, horrelako tokietara joateko gogoia baino zerbait gehiago behar da. Ideia bat egiteko hegazkineko bidaiak soilik 140.000 pta. balio dezake, gero estantzia, janaria... “Joango nintzateke berriro, baina horrelako bidai bat egiteko diru dexente aurreztu beharra dago”. Hala ere, Aitorrek ez du berriz ere antzeko ihesalditxo bat egiteko itxaropenik galdu.

dute hauek.

Modalitate honetan, tentazio guztiak ekiditu behar dira. Aletek askatasuna ematen duten arren, kontutan eduki beharrekoa da guretzat ezezaguna den erreinu honetan arrisku haundiko zonaldeekin topo egin dezakegula. Antzeko zerbait gertatu zitzaion Aitorri: “Arrain bati jarraika nenbilela, konturatu orduko oxigenorik gabe gelditu nintzen eta oraindik hamabi metro luze gelditzen zitzaizkidan ur azalera ailegatzeko. Ez nuke nahi esperientzia hau berriz errepikatzea”. Aitorrek urpeko ehiza lehia bat bezala deskribatzen du: “Harrapakina aukeratu eta

arpoia jaurtitzen da, gero indar eta abilezia haundiz jokatu beharra dago harrapakina zureganatzeko, kasu batzutan arrainak berak eraman zaitzake itsasoan barrena eta hau oso arriskutsua da. Dena birikien gaitasunean eta norberaren trebetasunaren arabera dago”.

Denbora libre duen gehienetan, beharrezko ekipamendua hartu eta Bizkaiko kostaldera joaten da, normalean Lekeitiora. Jakin badakigu, Aitorri arrain-sopa edarrak prestatzen dizkiola amak. Horrexegatik, ezin dezake horrelako irteerek eskeintzen dioten aukerak pasatzen utzi ehiza on bat burutzeko.

**Andoni Arana
Amagoia Lasagabaster**

IRIARTE



Umeen denda

Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96

BERALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
ARETXABAleta

**Artano
Taberna**

Herriko Plaza
ARETXABAleta

**IZOTZ
Taberna**

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta



Jonatan Gonzalez nagusitu zen Pedro Guenetxea Memorialean

Guztira 27 talde eta horien artean 160 txirrindulari izan genituen uztailearen 5ean burutu zen Pedro Guenetxea Memorialean. Probintzi mailako proba izan arren, Bizkaiko eta Santanderreko taldeek ere hartu zuten parte. 60 km.tako ibilbidea egin behar izan zuten partehartzailek. Irabazlea Jonatan Gonzalez zamudiotarra izan genuen. Tropeletik ihes eginda sartu zen helmugan. Segundu batzutura Josu Agirre eta Xabier Romero, Oriako txirrindulari elkarteak, helmugaratu ziren. Mendiko garailea Jonatan Gonzalez izan zen.

“Kalebarren 97” txapelketa azken txanpan

“Kalebarren 97” eskuz binakako txapelketa bukaerara iritsi da. Bikote guztiek elkarren aurka jokatu ondoren, datorren zapatuan finala eta 3. eta 4. postuak jokatu dira. Arratsaldeko 6etan hasiko dira partiduak, Roberto Alkalde eta Juan Ramon Altubek, J. Ignacio Barbero eta Jesusinen aurka jokatu dute 3. eta 4. postua erabakitzeko. Partidu honen ostean finala jokatu da, aurrez-aurre Javi Barbero-J.M. Martinez eta Fortu Lopez-Fermin Alkalde bikoteak ikusiko ditugu. Aurreko urteetako moduan ikuskizun handia sortuko dute partiduek kalebarrengo auzokideen artean.



Txapelketako finalistak: Javi Barbero-J.M Martinez, eta Fortu Lopez-Fermin Alkalde



ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27

Tfnoa: 77 11 75

ARETXABALETA




Aholkularitza

JOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08



ARGÍ-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30


Basabe Industrialdea

Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75

79 75 99

Broad Peak gailurretik etxera bidean



*Iñurrategi anaiek
igoera bide
tradizionaletik egin
zuten, ezin izan zuten
bide berria zabaldu.*

□ Zortzimilako zortzigarren mendia lortu dute Iñurrategi anaiek

Kostata baina azkenean berri pozgarriak heldu zitzaizkigun Pakistaneko Karakorometik. Alberto eta Felix Iñurrategi igande goizean heldu ziren Broad Peak tontorrera (8.047). Igoera berri honekin, zortzimilako zortzi mendi igo dituzte herriko bi anaiek.

Igoera bide tradizionaletik egin zuten eta ez hasiera batetan pentsatuta zuten moduan bide berri batetik. Iñurrategi anaiek bide berri bat ireki nahi zuten tontorreraino, Euskadi izena izango zuena. Eguraldi txarragatik eta bide horretan arrisku handia ikusten zutelako bertan behera utzi

zuten asmoa.

Goizeko 6etan bigarren kanpamentura heldu ziren, bertan atsedean txiki bat hartu eta goizkeo 10etan hirugarren kanpamentuan zeuden (6.900 metro). Domeka gauerdian 3. kanpamentutik gora abiatu ziren eta goizeko 11,15etan tontorreraino iritsi. (Euskal Herrian 8,15ak). Goranzko bidea gogorra izan zen, elurra bigun zegoelako eta leku batzutan gerriraino ere heltzen zelako.

Gauzak uste bezala joan ezker datorren astean helduko dira Euskal Herrira eta ohi moduan Murruxio M. E.aren eskutik ongietorria egingo zaie.

Itsasotik itsasora bizikleta martxa

Debagune (Deba bailarako Euskara Elkarteen elkargoak), Itsasotik Itsasora gazteei zuzendutako bizikleta martxa antolatu du. Uztailaren 18an trena hartu eta Lllancarantz (Girona) irtengo da taldea. Hemendik aurrera pedalei ematen 18 etapa inguru egingo dituzte Hondarrabaraino iritsi arte.

Bizikleta martxa honetan parte hartuko dutenek, Mediterraneotik Kantaurirako ibilbidea opor giro batean bizi ahal izango du.

Datorren denboraldirako UDAREN aurkezpena

UDAKo Preferente eta lehen mailako Erregionaleko taldeek datorren

denboraldirako aurkezpena egin zuten astelehenean.

Datorren denboraldiari begira, Preferenteko UDAK entrenatzaile berria izango du, Alberto Perez hain zuzen ere. Taldeari dagokionez, jokalaria batzuk alde egingo duten bitartean fitxaketa berririk ere izango da. Tito Etxeandia eta Kerman Sagasta bajak izango dira. Taldekide berriak, berriz, Juventus taldetik etorriko diren bi gazte izango dira: Larrea eta Ivan.

Bestalde, UDAKo jubenetik hiru gazte igoko dute gora: Egoitz Garai, Xabi Lasagabaster eta Xabi Idigorasek. Lehenengo mailako Erregionalean ez da aldaketa nabarmenik egongo, Juan Jose Etxebarriak zuzenduko du taldea.

Bestalde, zuzendaritza batzordeko hautagai berririk aurkeztu ez denez zuzendaritza berberak jarraituko du.

Taldeek astelehenean hasi zituzten entrenamenduak. Abuztuaren 26an lagun arteko partiduak hasiko dira. Liga berriz, irailaren 7an hasiko du Preferente taldeak. Erregional mailako liga, berriz, astebete beranduago hasiko da.

Izozkitekiki-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76



“Ahal dudan neurrian jendeari laguntzen ahalegintzen naiz”

Arrasateko Garagartza auzoan jaiotakoa bada ere, betidanik Arrasaten bizi izan da Joxebi Ramos. “El Diario Vasco” egunkari-ko korrespontsala delako dugu ezaguna herrian. Dagoeneko 13 urte egin ditu herriko korrespontsal lanak egiten.

• **Nola hasi zinen lan honetan?**

Leioan kazetaritza ikasten ari nintzela lanpostua irakurri nuen eta aurkeztu egin nintzen eta hartu egin ninduten.

• **Teleskon ere programa bat egiten duzu?**

“Teleskon” naturaren inguruko programa bat zuzentzen dut ostegunero.

• **Egin dituzun elkarrizketetan,**

zein duzu gogoan?

Zaila da hori esatea. Ardantzari egin izan dizkiot, eta beste politikari askori ere bai, Adolfo Suarezzi... “Martes y trece”ri egindakoa kurio-
soa izan zen. Elkarrizketa guztian zehar barre pila bat egin nuen.

• **Zer da zure lanetik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?**

Gehien, jendeaz kontaktuan egotea. Gutxien, komunikabideetan dagoen kompetentzia.

• **Jendeak partehartzen du notiziak ematerako orduan?**

Jendeari asko kostatzen zaio notiziak ematea. Gehiago kolaboratzea gustatuko litzaidake. Jendea ez da konturatzen kazetari bat ezin dela leku guztietara heldu.

• **Informazio gehiena non jasotzen duzu?**

Udaletxean gehiena.

• **Non gustatuko litzazuke lan egitea?**

Telebistako umorezko programa batean.

• **Zeintzuk dira zure hobbiak?**

Natura eta bidaiatzea. Kultura desberdinak ezagutzea gustatzen zait.

• **Nora joango zara oporretan?**

Etxekoei plaiara joatea eta deskantzatzea gustatzen zaie. Nire lekuak ezagutzea gustatzen zait. Aurten Frantzia aldera joango gara, Probenzara.

• **Zein kirol gustatzen zaizu?**

Futbola, baina ezin dut jokatu.

• **Zein da zure taldea?**

Erreala.

• **Zein prentsa irakurtzen duzu?**

“Diarioa”, astebukaeretan “El Pais” erosten dut eta baita Aretxagazeta ere. Noan lekura noala bertako egunkaria erosten dut, bertan egiten diren ekintzetaz jakiteko.

• **Zein da zure birtute bat?**

Zabala naiz. Ahal dudan neurrian jendeari laguntzen ahalegintzen naiz.

• **Eta alde txarra?**

Konfidantza gehiegi dut jendeagan eta gero muturrekoak hartzen ditut.

• **Zer baloratzen duzu pertsona batean?**

Zintzotasuna., berekoa ez izatea.

• **Etxeko lanik egiten duzu?**

Bai, emazteak eta biok lana banatzen dugu. Fregatua egitea ez zait gustatzen.



Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
euskera elkartea



ndramaixetako hirugarren eguna beti izan da beste egunak baino animatuagoa. Hori koadrilek jarritako giroari esker lortu izan da. Argazkiko neskek bi trikitilarien laguntzarekin eguna alaitzeko asmoz irten zuten kalera. Ez zuten aparteko berezitasunik, sardinera jantzia, baina trikitilarien soinua nahikoa izan zen kalean gora eta behera dantzari ibiltzeko.

1.966. urteko Andramaixetan beste koadrila batzuk ere parte hartu zuten koadrilen egunean. Argazkikoak ez ziren irabazleak izan, urte hartan, ijitano koadrila batek atera baizuen saria. Argazkikoak bigarrenak izan genituen.

Neskek, Bixente Aranzabal (Koipe) eta Hilario Idigoras trikitilariak izan zituzten laguntzaile. Lurdes Llodio aipatu digunez, "eurak jarritako animazioari esker lortu genuen saria". Ezagunak ziren herrian, lehena trikitia jotzeko zuen afizioagatik eta bigarrena panderojolea zelako. Bixente Aranzabalek, Zaloña baserrian jaioa, bere kontu ikasi zuen trikitia jotzen. Bitxia bada ere, urtero San Juan inguruan, Narbaixa aldera joaten zen soinua hartu eta arbia saltzera. Bertako jendeak oso estimatua zuen, umore onekoa eta alaia zelako. Hemen, inguruan, Santa Ageda batzen Gellao eta Galartza aldeko baserrietan ibilitakoa zen. Nagusiagoa zenean, berriz, oraindik ere soinua aldean hartuta auzoetan ibiltzen zen: Lariño, Azatza... beste behin Araotzen ere jo zuen.

Hilario Idigoras, berriz, argazkiko panderojolea, Larrinoko Larrin-Etxebarri baserrian jaio zen. Zestoan eta Gernikan bizi izan zen ondoren, gerra ostean Aretxabaletara bueltatuz. Bere arrebaren moduan panderoa jotzeko afizio handia zuen eta heriotza heldu zitzaion arte, panderoa eskuan izan zuen Hilariok.

Normalean elkarrekin jotzen ez bazuten ere, egun hartan batera jo zuten Bixente eta Hilariok. Gaur egun biak hilda badaude ere, bizitzako azken egunerarte trikitia eta panderoa ondoan izan zituzten.

Argazkikoak: **Loli Mayoral, Pili Urrutia, Hilario Idigoras, Bixente Aranzabal, Lurdes Llodio, Arantxa Akizu.**

Jarrita: **Itziar Irizar, Alicia Aldalur.**

Argazkia: **Lurdes Llodio**



**Lurrindegia
Opari-denda**

Bedarreta

taberna

Otalora, 19
Tfnoa: 79 20 89



**BASTER-ALDE
JATETXEA**

**SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN**

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

Erruki ni



M. J. Arzak

Esaldi hau errepikatuz, erderaz jakina, bukatzen dira San Ferminak. Etorritako moduan bukatu ziren joan den astelehenean. Ziur nago zuetako askok bertatik bueltatxo bat emango zenutela. Baina gehienok bertako tabernetako giroa dastatu dugun bitartean, badaude bi atxabaltar, **Egoitz Garciaetxabe** eta **Hodei Lazpita** zezenaren adarren aurrean takarraren egiteko ausardia izan zutenak. Afizio handia dute nonbait zezenetan ibiltzeko. Datorren urtean adi egon beharko dugu ea telebistan ikusten ditugun.

Jaiekin jarraituz, Andramaixak gainean ditugu eta lehiaketa desberdinak jarri dira martxan. Kartel lehiaketa **Felis Beltran de Herediak** irabazi du eta bere konpozizioan **Felix Berasaluze** bolotan ikus dezakegu eta **Elena Arrese** eta **Fidel Iturbe** jo ta ke dantzan. Bestalde, Loramendik antolatutako pegatina lehiaketako irabazleak: **Amagoia Unanue**, **Eneritz Urrutia**, **Ergiña Urzelai** eta **Mirian Zuazua** izan dira. Aurkeztutako lema berriz: "Ederra sakatu duskue

erderiorreaz". Lehiaketa oso arrakastatsua izan da eta 150 proposamenetik gora aurkeztu dira. Irabazleenaz gain beste lema batzuk ere oso onak izan dira. Agian San Migeletarako edo beste jai batzutarako erabiliko direla esan digute Loramendikoek. Agian nirea ere talde horretan egongo da.

Herriko jaiak alde batera utziz eta auzokoetara pasatuz, Larrinoko San Kristobal jaixetan bakailu txapelketa antolatu zuten eta bertan irabazleak **Antton Urkia** eta **Imanol Etxeberria** izan ziren. Epaile lana egin zutenak, berriz, ondorengoak: **Jabier Bengoa**, **Martzelina Bengoa** eta **Jose Mari Mujika**. Bakailua nork jan zuen ez digute argitu.

Auzoko jaiekin jarraituz **Portasolekoak** ospatuko dira astebukaera honetan. Musika moderno eta elektronikoa entzuteko aukera izango dugu, 25 Dj. ei etorriko ei dira Euskal Herriko txoko desberdinetatik eta Kataluniatik. Aber ba, zer moduzko giroa izaten dugun jaietan.

Jai kontuekin bukatuz eta Loramendi elkartera bueltatuz, esan behar da, hitzarmen teknikari berria, **Amaia Ugartemendia** tolosarra izango dela. Orain gipuzkeraz berbetan hasi beharko gara.

Gaur ohar batekin bukatu nahi dut. Oporretan kanpora zoaztenok ez ahaztu Aretxagazetara postal bat bidaltzea, hemen agindu didate opari berezi bat jasoko duela irabazleak. Eta edozein lekutan egonda ere osdo pasatu oporretan. Hori bai Andramaixetarako forman egoteko Portasoleko jaixetan aukera ederra izango duzue motorrak berotzeko.

LANA

• Neska euskaldunak udan klase partikularrak emango lituzke: OHO, REM eta BUPEko lehen eta bigarren maila. Tfnoa: 79 51 19.

ETXEBIZITZA

• Atenditzeko arazoengatik Arrasaten martxan dagoen eta bi iharduera dituen denda saltzen da. Prezioa konkretatzeko. Harremanetarako telefonoa 77 13 91 telefonoa.

• Laredon apartamentua alokagai dago. Abuztuko azken astea edo iraileko lehen hamabostaldia. Tfnoa: 79 31 47.

• Aretxabaletan ileapain-degi mixtoa alokagai dago. Solariuma eta edertze aretoa ditu. Lokal argia da. Herriaren erdian. 60 m²koa. Instalazio guztiak ditu eta funtzionamenduan. 77 12 70-79 94 39.

• Aretxabaletan pisu bila gabiltza. Tfnoa: 79 10 93.

• Irailetik aurrera neska bat pensio osoan hartuko duen familia behar da. Ikaslea. 79 74 73.

• Etxea salgai dago Eskoriatzako San Pedro auzoan. 80 m², guztiz erreformatua. Tfnoa: 71 47 32.

DENETARIK

• Renault 5 bat saltzeko daukat. ITVa pasatuta dauka datorren ekainerrate. Prezioa: 75.000 pta. Tfnoa: 79 78 37.

• Dibortziatu, banandu eta alargun taldeak, (Deba Garai eta Behean), geure taldea haunditu nahi genuke. Interesatuak idatzi Bergarako 284 posta kutxatilara.

• Remolkea salgai. JB-150 modeloa. Soporte eta aldatzeko erruerekin. Berria da, ezin izan dugu erabili. Oso prezio egokia. 79 81 78.

• 4/5 plazatako karabana erosiko genuke. Tfnoa: 79 77 85.

• Renault 5 GTL kotxea salgai. SS-P. Egoera onean 77 93 30-79 81 35.

• Siberiar husky txakurkumeak salgai. Pedigree bikainekoak eta prezio ezin hobean. Tfnoa: 79 59 85. (Anagatik galdetu).

• Kanping denda salgai. 3 logela, sarrera eta aterpea. Harremanetarako deitu 77 11 45 telefonora.

• Behar ez duzun ordenagailuren bat baldin baduzu deitu Saretxora. Tfnoa: 79 10 51-79 01 05.

• Bizikleta bat (paseokoa) lehe bait lehen **emateko** daukat. Egoera onean. Tfnoa: 79 30 61.




HITZ GEZIDUNAK



LARORANTZA TRESNA	OGI-EGILEA	LIKATZEKO	GALTZEI ELUSTEKOAK
ZUEI, DOA	* IZENA	BI	ASKO
57			GRAMA
LINDOAK HARTU		BIZK. GEHIEGI	LERDENAK
		GURI	
LAPURDIKO AK	ALE LANGARE	BIGARRIN BOKALA	IDORRI BERRIEMALE
ARETOAK	BIZKAINO HERRIA	SUARI DARIO	* DEITURA
		KONTSCHNERA	IZEN VIKINGOIA
		PORTUAK	INFUSIO MOTA
PARE JARRIA			BOKAL BOROBILA
FALTSU			ZERO
	ETSAIA	A R E R I O A	
	MILA		
KONTSCHNERE ENKIZA	1499	INDIOA	POTASIOA
ZATI	ZEREGIN	LANGA	SO
ESPARTINAK	EMAKUME IZENA		ALLUMINIOA
BURDINBIDEA	DETEKTORALI		ATERTU
			NAU
			NITROGENIOA
			ANAXIA HITZ ELKAR
		NORAT ATZOKIA	BOKAL BIKOTZA
		ZINTZOA	BIZK. IRATZEA
ARTE ERDIAN	MUSKANOTA		
BAZTANGOK	KONTSCHNER	ZERU	
		501	
(ERREP.) TXORI- MOTA	ITALIAKO TELEBISTA		KASK

HABE

JEROGLIFIKOA



HABE

Non ikasi duzu hori?

* Soluzioak
18. orrialdean

**Udako postalen artean
zozketa berezia**


Uda honetan zehar Aretxagazetara heltzen diren postal guztien artean zozketa bat egingo dugu eta saritu ateratzen denak **opari berezia** jasoko du. Ez zara idazteaz damutuko.

Ez ahaztu postalean izena eta telefonoa jartzea. Eta jakina, gure helbidea hauxe da:
Aretxagazeta aldizkaria/151 postakutxatila/ 20.550 Aretxabaleta.
Helbidea ahaztuz gero ere, Aretxagazeta aldizkaria jarrita ziur gaude postala helduko zaigula.

Opari berezia zain daukazu, ez ahaztu!

Zauden lekuan zaudela goğoratu Aretxagazetarekin

Liburutegiko txokoa



Kontu zaharrak
Joxe Arratibel
Erein, 1995

Joxe Arratibel fraile beneditarrak gaztetan entzundako kontra zaharrak idatziz jarri izan ditu eta ereinek liburu zoragarri hau egiteko bildu ditu horietako batzuk. Batzuk ezagunak dira eta beste batzuk ez hainbeste, baina dena den euskal ahozko tradizio aberatsa ezagutzeko baliagarri dira. Garai batetan euskal literatura ahozkoa zen batez ere, eta sutondoan biltzen ziren famailiak kontuak entzutera. Gaur egun ohitura horiek galdu egin dira, eta inork kontatu ezan ipuinok irakurtzeko aukera ematen digu Arratibelek, edo eta beste batzueri kontatzeko ere bai. Antton Olariagak eginiko marrazkiek lagundu dute lan hau, eta 10 urtetik aurrerako haurrek eta helduek ere gustora irakurriko duten liburua izanik, haur txikiagoei oheratzean kontatzeko moduko istorioak ere aurkituko dituzue bertan.

Joseba Lopez de Armentia

**Mobiliario
ARENAZA**

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETAKO



**Modan
dagoen guztia**

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 21 24

**Orain
likidazioan**

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparagirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETAKO

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

**Matikua
jatetxea**

Bertako mortzilak eta
txorizoak

Eguazten arratsaldetan itxita
Azatza auzoa
ARETXABALETAKO

BP Amaia-Berri, S. L.

**Gasa- Klimatizazioa-Isurkor
Teknologia**

Otalora, 18 behea Tfno-Faxa: 77 06 49
ARETXABALETAKO

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABALETAKO

UZTAILA

18, 19, 20

**SAN LORENTZO JAIAK
PORTASOLEN**

19

zapatua

KOSTALDERA IRTEERA

Zaraia M. Tak Lekeitiora egingo du
irteera. Bertan argazki ralia egingo da.

25, 26

**SANTIAGO JAIAK
KORUETAN**

Eguakotxean, kanpai errepikak, meza
nagusia, luntxa eta dantza
gaztetxoekin.

6etan IX. mus txapelketa, IV. briska
txapelketa, marrazki lehiaketa.
Zapatuan, eguerdiko 12etan meza
nagusia eta ondoren txikiteoa.
Arratsaldeko 5etan haurren jolasak.
9etan auzo afaria eta 10,30etan
dantzaldia.

30, 31

**MURU ALDE ELKARTEAREN
EGUNA**

Uztailaren 30ean, ilunkaran etxafleroen
jaurtiketa. 8etan txikiteoa eta ondoren
afaria Gorrotxategi eta Agirre bertso-
lariekin.

San Inazio egunez, 12etan meza hildako
bazkideen alde, 12,30etan bolo txapelketa
eta ondoren salda eta txorizoa Muru Alde
elkartean.

ABUZTUA

17, 18, 19, 20

ANDRAMAIXAK

23


zapatua

FUTBOL PARTIDUA

EIBAR-ALAVES

UDAKo preferente mailako taldea
Espainiako txapelkun geratu zeneko
25. urteurrena ospatzeko. Ibarra futbol
zelaian Eibar-Alaves partidua ikusi
ahal izango dugu. ETBk emitituko du.

JEROGLIPIKOA: Liburutetan



HITZ GEZIDUNAK

SOLUZIOAK

Ikastaroak

TEILATUAK JARTZEKO
ETA MIG-MAG SOLDA-
DURA IKASTAROA

Durangoko Sartu enpresak Mig-Mag soldadura eta teilatuak jartzeko ikastaroak antolatu ditu. Ikastaro hauek Eusko jaurlaritzako Ekonomia eta Lan Sailak finantziatu ditu, Europako Fondo Sozialaren laguntzarekin. Informazio gehiagorako: 6200449 telefonora deitu, Marije.

Lehiaketak

VIII. ARGAZKI LEHIAKETA

"Mugarik gabeko gazteak"

Gaia: "Mugarik gabeko gazteak".
Bi modalitate: zuribeltzean eta koloretan.
Bi kategoria: 14-19 bitarteko Deba Garaiko gazteak eta 19-35 adin tarteko edozein.
Aurkezteko epea: urriaren 10a, Arrasateko Udaleko gazte zerbitzuan.
Informazio gehiago: 77 00 65.

ARRASATE 97
LITERATUR LEHIAKETAK

Ipuina, poesia, bertso-paperak.

Lehiaketa honetan Leintz Bailaran bizi, lan egin edo ikasten duten 17 urtetik beherako gaztetxo guztiek parte har dezakete. Adin horretatik aurrerakoen mailan, ostera, Deba Garaia guztira zabaltzen da parte hartzea. Lanak AED elkartera bidali behar dira urriaren 31a baino lehen. AED elkarte "ARRASATE 97"
Lehiaketak/Pablo Uranga kalea, 4 behea/20.500 Arrasate. Informazio gehiago AED 77 12 28.

JOKIN ZAITEGI
XI. ITZULPEN LABURPEN
SARIKETA

Aurtengo gaia librea izango da. Lehiaketa, munduko edozein hizkuntzatatik -gaztelaniatik izan ezik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Lanak urriaren 31a baino lehen honako helbidera bidali behar dira: AED elkarte "Jokin Zaitegi"
Sariketa /Pablo Uranga kalea, 4 behea/20.500 Arrasate.
Informazioa: AED: 77 12 28.

BEHARREZKO
TELEFONOAK

Aretxabaleta

• Almen	71 49 64
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskalategia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00

Portasolen San
Lorenzo jaiak

Uztailaren 18, 19 eta 20an.
Dantzaldiak, soka-muturra, mus txapelketa, tekno jaiak...



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8 Aralar z/g
Tfnoa: 79 19 34 Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Scenic Mégane

Aukeren
boom-a

MECA Pribilegioak
Bezeroa da
aurrenekoa



MECA

San Andres auzoa • Tel.: 79 50 12 / 79 59 99 • ARRASATE



RENAULT